

## UPV/EHUko IKERTALDEETARAKO LAGUNTZEN DEIALDIA(2024)

### II. MODALITATEA: IKERTZAILEAK TALDE AKTIBOETAN SARTZEA (II. Fasea)

2024ko azaroaren 6tik 22ra ikertzaileak talde aktiboetan sartzeko laguntza (II. Fasea) ireki da. Ikertzaileen alta berriak UPV/EHUK (GIUen kasuan) edo Eusko Jaurlaritzak (GIC kasuan) eskaerak aurkezteko azken egunean eskatu edo baimendu behar dituzte.

**Ikertaldean sartzen diren pertsonen deialdiaren 10. Oinarrian agertzen diren baldintza guztiak bete behar dituzte:**

- a. *UPV/EHUrekin kontratu harremana izatea.*
  - b. *Doktore izatea.*
  - c. *Irakasle eta ikertzaileen kolektibo hauetako batekoa izatea:*
    - i. *UPV/EHUri modu iraunkorren lotutako lan kontratuduna edo funtzionarioa.*
    - ii. *Pertsonal ez iraunkorra; honi dagokionez, UPV/EHUrekiko kontratu edo loturak 2025eko abenduaren 31ra artekoa izan behar du.*
- Atal honetan sar daitezkeen kolektiboak gorabehera, kategoria honetatik kanpo gelditzen dira espresuki:*
- i. *UPV/EHUrekin loturiko pertsonala, Zientzia, teknologia eta berrikuntzaren 14/2011 legearen 21, 22 eta 23. artikuluetan (2022ko irailaren 6an eraldaturik) eta 32/2021 Legegintzako Errege Dekretuaren xedapen gehigarrian jasotako kontratu mota ezberdinen bidez.*
  - ii. *Irakasleak ordezkatzeko plazak betetzen dituzten langileak.*
- d. *UPV/EHUn arduraldi osoz aritzea. Bi salbuespen daude dedikazioan:*
    - i. *Unibertsitateko ospitaleetako irakaskuntza unitateetako irakasle elkartuak eta lanpostu hutsetan dauden bitarteko lan kontratudun irakasleak, betiere doktore badira.*
    - ii. *UPV/EHURA lehenengo mailako atxikipena duten Ikerbasqueko langileak.*

### **Eskaerak aurkezteko modua:**

**Ikertaldearen ikertzaile nagusiak (IN)** eredu normalizatuan aurkeztuko du eskabidea, UPV/EHUko erregistro elektronikoaren bidez (<https://egoitza.ehu.eus/es/registro-electronico>). Bertan sartuta, "Jasotzailea" atalean "Ikerketaren arloko Errektoreordetza" aukeratu behar da eta, bigarrenaz, "Ikerketa taldeak (U02000424)", zehaztuz "eskatzen du" atalean "UPV/EHUko ikertaldeak 2024 II. modalitatea". Identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili beharko da: UPV/EHUko langile txartela, Izenperen ziurtagiri digitala, NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).

### **Aurkeztu beharreko dokumentazioa:**

1. Eskaera-inprimaki bakarra, INaren sinadurarekin.

2. Ikertaldera gehitu nahi diren pertsonak adina sartzeko onartzea. Inprimaki bakoitza sartu beharreko pertsonak sinatu beharko du.

\*Sinadura guztiak elektronikoak izan behar dute beti, eta ziurtagiri aitortuarekin.

3. Ikertaldera sartuko den ikertzailaren curriculum laburra\_(CVA FECyT ereduan edo baliokidean:: <https://cvn.fecyt.es/editor/>)

**OHARRA:** I. fasean eskaera aurkeztu duten pertsonak EZ dute dokumentazio gehigarririk aurkeztu behar fase honetan.

**Harremanetarako datuak:**

- Posta elektronikoa: [igz.ikerketataldeak@ehu.eus](mailto:igz.ikerketataldeak@ehu.eus)